

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Eltziegoko biztanleei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko 2022-2023 ikasturteko deialdia

BDNS (Identif.): 698354.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/698354>.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena, dirulaguntza horiek arautzen dituen ordenantzarekin bat etorri. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai.

Xedea

Eltziegoko biztanleei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko 2022-2023 ikasturteko deialdiaren laburpena.

Onuradunak

Eltziegoko udalerrian erroldatutako pertsona fisiko adin nagusikoek edo emantzipatuek edo, bestela, haien guraso ahala edo tutoretza dutenek jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean dirulaguntzak jasotzeko ezarritako baldintza orokorrez gainera, laguntza hauek arautzen dituen 2021eko maiatzaren 21eko ALHAOn (55. zk) argitaratutako udal ordenantzaren laugarren eta bosgarren artikuluetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Diruz lagundu daitekeen jarduera

Matrikula, modalitate hauetako edozeinetan: urritik otsailera, otsailetik ekainera edo urritik ekainera bitartean emandako aurrez aurreko ikaskuntza ikastaroak, urrutiko edo multimedia sistemako ikaskuntza ikastaroak, ikastaro trinkoak eta barnetegietan egindako ikastaroak.

Honako gastu hauek ez dira deialdi honetan sartzen: joan-etorrien gastuak, mantenu gastuak, material gastuak eta ostatu gastuak.

Euskaltegi homologatuen ikastaroak soilik lagundu ahal izango dira diruz.

Dirulaguntzen zenbatekoa

Laguntza hauen eskatzaileek, ordenantza arautzailean eskatutako baldintzak betetzen badituzte, deialdi bakoitzean aurkeztutako ikastaroaren matrikularen ehuneko berrogeita hamarreko (ehuneko 50) dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute, eta, gehienez ere, 350 euro jaso ahal izango dituzte.

Baldin eta, eskaera kopurua eta onuradunek jaso beharreko diru kopuruak direla eta, beharrezkoa bada dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak gutxitzea aurrekontu aplikazioan esleitutako kredituaren muga orokorrera doitzeko, eskatzaile guztiei proportzionalki ezarriko zaie murrizketa hori.

Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza hauen onuradun izateko eskaerak ikasleak aurkeztu behar ditu, adin nagusikoa bada edo emantzipatuta badago, edo haren aitak, amak, tutoreak edo legezko ordezkariak, adingabea baldin bada, Udaletxean bertan eskuratu ahal izango den eredu ofizialaren arabera. Udalaren web orritik ere deskargatu ahal izango da ereduak (<https://www.elciego.es/eu>).

Eskaerari honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a. Ikaslearen eta, hala dagokionean, eskatzailearen guraso edo tutoreen NANaren edo AIZren (atzerritarren identifikazio zenbakia) edo balio bereko identifikazio agiriaren kopia.

b. Erantzukizunpeko adierazpena, ezarritako ereduaren arabera egina, adierazten duena ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorak 13.2 artikuluan jasotzen dituen kasuetako batean ere.

c. Erantzukizunpeko adierazpena, ezarritako ereduaren arabera egina, zeinean zehaztu beharko baita eskatzailea beste edozein erakunde publiko edo pribaturen onuraduna den ala ez, bai eta udalari eskatutako laguntzaren xede diren ikasketa berak egiteko eskatzaileak dauzkan onura, laguntza, beka nahiz edozein motatako laguntza publiko edo pribatuen zenbatekoak ere, halakorik bada.

d. Hirugarrenen alta fitxa, udalak ezarritako eredu ofizialaren arabera egina, behar bezala beteta eta dagokion banketxeak zigilatuta, udalak interesdunari laguntzaren zenbateko ekonomikoaren transferentzia egin ahal izan diezaion, hura ematen baldin bazaio.

e. Laguntza eskatzen duen ikaslea Eltziegoko udalerrian erroldatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

f. Udaleko diruzainak emandako ziurtagiria, egiaztatzen duena eskatzaileak eta familia unitateko gainerako kideek egunean dituztela Eltziegoko Udalarekiko zerga betebeharrak.

g. Euskaltegiaren ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarrien berri ematen duena:

Ikaslearen identifikazio datuak.

Ikastaroaren kostua; matrikula gisa ordaindutako diru kopurua.

Egindako ikastaroaren maila eta ikasketa orduen kopurua (astekoak eta guztira).

Ikastaroaren hasiera eguna eta amaiera eguna.

Ikaslearen asistentzia maila: emandako eskola orduen eta ikasleak parte hartutako orduen arteko erlazioa adierazten duen ehunekoa.

Barnetegi batera joanez gero, euskaltegiaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banakatu beharko dira.

h. Diruz lagundutako euskara ikastaroaren prezioa ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak era presentzialean aurkeztu ahal izango dira, Eltziegoko Udalaren Erregistro Orokorrean (Plaza Nagusia 1), 9:00etatik 14:00etara arte, baita bide elektronikoz ere, udalaren egoitza elektronikoa, edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako beste edozein bide erabiliz.

Hilabeteko epea izango da eskaerak aurkezteko, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eltziego, 2023ko maiatzaren 22a

Alkatea

JUAN CARLOS URIBE RUEDA